

Poesia

GERARDO MARKULETA
Denbora bere lekura



erein

DENBORA BERE LEKURA

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitoezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2015eko maiatzean

Azaleko irudia:

Nuria Bernardo Axpe

Azalaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Gerardo Markuleta

© EREIN. Donostia 2015

ISBN: 978-84-9746-985-2

L. G.: SS-528/2015

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Gerardo Markuleta

DENBORA BERE LEKURA



I

DENBORA BERE LEKURA

PINUDIA

Artean
ohartzeko gauza ez bagara ere,
bizitzak
goizean goizetik ematen dizkigu,
ulertzen hasi gaitezen,
zantzuak.

Umetan
sarritan
aldapa gorako pinudi batera
hurreratzen ginen jolas egitera,
debekua bazen ere
etxean.

Pinuan
gora egiteko saio barik ere
–hostaje sarriak eragozten zuen–,
askotan
etxeratzen nintzen erretxinaz zikin
arropak.

Haziak
ez ziren jateko onak. Sasoian,
masustak
eskaintzen zituzten sasiek ertzetan.
Askaltzera, baina, beti jaisten ginen
etxera.

Neguan
zetazko habiak agertu ohi ziren,
orratzak
lehor tarteka. Gero, udaberrian,
lurretik narras, beldarrak
ilaran.

Jabea
ez zen pinudian sekula agertzen.
Pinuak
jabedunak ziren, zalantzarik gabe.
Beharrezkoak ez omen
hesiak.

Aldapa
buruan, zelai bat ageri zen zabal.
Behean,
erreka bat. Eta harexen gainean
zubi ttipi bat, etxera
bidea.

Zantzuak
ulertzeko gauza bide gara orain.
Argi da
zer diren jabea, masustak, beldarrak,
zubia, zer den pinudia? Zeinuek
garden dirudite, eta
ez dira.

LURRAREN IZENAK

Conozo un país onde el mundu llámase
Zarréu Grandiella Picu la Mouta Paniceiros.

XUAN BELLO

On a vécu avant moi dans ce monde.

YEHUDA AMIJAI

Gu iristerako
mundua bada
izen bitxiz betea:
Olaa, Triana,
Mojasoro, Udana.

Lurraren izenak
zubiak dira,
denboraren uberak.
Zañartu, Ubao,
Olapoto, Berezao.

Ez gara lehenak
hemen hauetan
berbetan ibiliak.
Osinurdin, Garai,
Ahuntzerreka, Garibai.

Gizaki musika
hartu du lurrak,
lur hotsa gizakiak.
Murguzur, Koroso,
Jaumendi, Torreauzo.

Lurrari loturik
leku izenak,
gu bagoaz igaro.
Duru, Mirubizkar,
Zubillaga, Goribar.

NESKAK MOJETARA

Herriko neska gehienak
mojetan eskolatzen zituzten.
Batzuk beneditarretan
–uniformea gris eta gorri–,
asko karitatearen
alabekin –eskola jantzia
gris eta urdin–.

Mutilok,
gertuago izan genituen
eskola nazionaleko
neskatxa ikaskide bakanak:
auzo apartatueta
bizi zirenak, edo herrira
heldu berriak.

Zelatan
jarri ohi ginen ikastetxeko
atearen inguruan:
jertse gorritz, eta pedofilo
batek diseinaturiko
gona motz haiekin, neskatilek
deus ez zekiten aldean
zeramaten edertasun altxor,
haragi indar bortitzez.

Gona motz haiek, ordea,
beti gogoan, oroitaziz
edertasuna zeinen den,
ustez, eskura; zein eskuragaitz
gehienean.

Ordutik dut
mojekin errezeloa, eta
voyeur arima ttipi bat.